



**FEDERACIÓN VASCA DE TIRO CON ARCO
EUSKADIKO ARKU TIRO FEDERAZIOA**

**ARETOKO EUSKAL LIGAREN
ARAUDIA 2025**



DOCUMENTO OFICIAL



FEDERACIÓN VASCA DE TIRO CON ARCO EUSKADIKO ARKU TIRO FEDERAZIOA

1. SARRERA
2. HELBURUA ETA IRISMENA
3. PARTE HARTZEA
4. ANTOLAKETA
5. LEHIAKETA
6. UNIFORMETASUNA
7. LIGAKO AZKEN SAILKAPENA
8. SARIAK
9. SARIAK ESKATZEA
10. DIZIPLINA ETA GATAZKEN EBAZPENA
11. SEGURTASUNA
12. DOKUMENTU ERANTSIAK
 - ARETOKO SARIEN TAULA
 - EUSKADIKO ARKU TIRO FEDERAZIOKO SARIAK ESKATZEA





FEDERACIÓN VASCA DE TIRO CON ARCO EUSKADIKO ARKU TIRO FEDERAZIOA

1. SARRERA

- Euskal Autonomia Erkidegoko jarduera fisikoari eta kirolari buruzko martxoaren 30eko 2/2023 Legeak Euskadiko Arku Tiro Federazioari ematen dizkion eskumenen artean dago gure kirol modalitatearen eremu komunitarioko kirol jarduera eta lehiaketa ofizialak bultzatzea, kalifikatzea, baimentzea eta antolatzea.
- Euskadiko Arku Tiro Federazioaren helburu estrategikoen artean dago Euskal Ligak eta Euskadiko Selekzioa sailkatzeko irizpideak zehazten dituzten araudi eta erregelamenduak ematea, Euskadiko Arku Tiro Federazioaren estatutuetan bildutako modalitate guztietan.

2. HELBURUA ETA IRISMENA

Araudi honen bidez honako helburu hauek lortu nahi dira:

- Euskadiko Arku Tiro Federazioari denboran iraungo duen esparru testu bat ematea, urtero-urtero, funtsean, aldatuko ez dena.
- Euskal Autonomia Erkidegoan garatutako arku tiroko dibisio guztiak berdintzea.
- Aretoko eta Aire Libreko Euskal Ligako txapeldun, txapeldunorde eta hirugarren finalista nor izango diren zehaztea.
- Araudi honen irismena aretoko modalitatea da, eta Euskadiko lehiaketa ofizialetan parte hartzen duten kirolari federatuei zuzenduta dago.



FEDERACIÓN VASCA DE TIRO CON ARCO EUSKADIKO ARKU TIRO FEDERAZIOA

3. PARTE HARTZEA

- Aretoko Euskal Ligan parte hartu ahal izango dute Euskadiko Arku Tiro Federazioak (aurrerantzean, EATF/FVTA) emandako Federazio Lizentzia indarrean dutenek. Arkulari horiek adinaren arabera dagokien modalitatean jaurti ahal izango dute.
- Aretoko Euskal Liga honako dibisio hauentzat egiten da: Konposatua, Biluzia, Tradizionala, LongBow eta Kurbatua, modu absolutuan (gizonak eta emakumeak).
 - **Konposatua:** Emakumeak eta gizonak bereizita
 - **Biluzia:** Emakumeak eta gizonak bereizita
 - **Tradizionala:** Emakumeak eta gizonak bereizita
 - **LongBow:** Emakumeak eta gizonak bereizita
 - **Kurbatua:** Emakumeak eta gizonak bereizita
- Bereizketa horiek beti errespetatuko dira, eta ezinezkoa izango da horietako edozein bateratzea.
- Kirolari bat bi tiro lerrotan, dibisio desberdinetan, lehiatu ahal izango da jardunaldi berean, eta bi puntuazioak kontuan hartuko dira Ligarako.
- Edozein arrazoi dela eta, arkulari batek asteburu batean bi aldiz edo gehiagotan Aretoko Euskal Ligarako baliozkoak diren tiraldietan dibisio berean lehiatu behar badu, baliozkoa bere lehen jarduna dela jakinarazi beharko dio alde aurretik tiraldi horretako epaileari, eta hurrengoan edo hurrengoetan, hasi aurretik, lehiaketatik kanpo jaurtiko duela jakinarazi beharko dio epaileari, eta Ligarekin batera egiten den tokiko lehiaketaren ondorioetarako izango dela soilik.
- Arestian deskribatutako prozedurari jarraitu ezean, Ligaren ondorioetarako, ez da kontuan hartuko asteburu horretan lortutako puntuaziorik.



FEDERACIÓN VASCA DE TIRO CON ARCO

EUSKADIKO ARKU TIRO FEDERAZIOA

4. ANTOLAKETA

- Lurralde Federazio bakoitzak tiro lerro bakarra antolatuko du, eta txandaka antolatu ahal izango da.
- Akta, dianen zozketa eta emaitza teknikoak bidaliko zaizkio EATF/FVTari, hark lehiaketaren hurrengo astearteko 21:00ak baino lehen sailkapena egin dezan. IANSEO erabiliz gero, lehiaketa artxiboa, dianen zozketa eta emaitza teknikoak bidal daitezke.
- Lehiaketa Ligarako konputagarria izan dadin, beharrezkoa da indarrean dagoen lizentzia daukan epaile batek, gutxienez, gidatzea.
- Lurralde Txapelketekin edo Lehiaketa Sozialekin bat egin ahal izango dute, baldin eta lehiaketa formatu ofiziala badute, eta deialdietan beti jakinarazi beharko dute baliozkoak direla Euskal Ligarako.
- Datak
 - Urriaren ... edo ...(e)(a)n, Aretoko 1. Euskal Liga
 - Azaroaren ... edo ...(e)(a)n, Aretoko 2. Euskal Liga
 - Azaroaren ... edo ...(e)(a)n, Aretoko 3. Euskal Liga
 - Abenduaren ... edo ...(e)(a)n, Aretoko 4. Euskal Liga

5. LEHIAKETA

- Lehiaketek 30 geziko bi serie izango dituzte, bakoitza 18 metroko distantzian, dibisio guztietarako.
- Biluzi, Tradizional eta LongBow dibisioek 80 cm-ko dianak erabiliko dituzte, 5etik 10era murriztuta.
- Konposatu eta Kurbatu dibisioek, berriz, dibisio bakoitzari dagokion diana hirukoitz bertikal bat erabiliko dute.
- Lehiaketa bakoitzean nahitaezkoa izango da puntuazioak puntuazio orri bikoitzarekin eramatea, eta horietako bat elektronikoa izan daiteke.



FEDERACIÓN VASCA DE TIRO CON ARCO EUSKADIKO ARKU TIRO FEDERAZIOA

6. UNIFORMETASUNA

- Lehiaketa guztietan errespetatu beharko dira banakako uniformetasunari buruzko arau orokorrak, eta indarrean dagoen World Archeryren (aurrerantzean, WA) araudia aplikatuko da (3. liburua, 20. kapitulua, jantzien arauak).
- Epaileak izango dira txapelketan zehar kasu bakoitzean ezarritako uniformetasun arauak betetzearen erantzule.
- Ez da onartuko tiro lerroan galtza bakeroekin dabilen parte hartzailerik.

7. LIGAKO AZKEN SAILKAPENA

- Sailkapena absolutua izango da dibisio eta mota guztietan.
- Aretoko Euskal Ligarako tiraldietan, arkulariek adinaren arabera dagozkien modalitateetan jaurti ahal izango dute.
- Euskal Ligak jardunaldi eta final bakoitzean izango duen sailkapena bakarra izango da dibisio bakoitzean, baina gizonezkoak eta emakumezkoak sailkapen berezietan joango dira. Kategoria bakoitzean distantzia eta diana mota berera jaurtitzen duten modalitateak sartuko dira, hau da, kadeteak, juniorrak, seniorrak eta beteranoak.
- Lehen hiru sailkatuentzat garaikurrak egongo dira.
- Kategoria bakoitzeko azken sailkapena lau jardunaldietako 3 puntuaziorik onenen baturarekin ezarriko da.
- Ligako bi jardunalditan parte hartu beharko da gutxienez, kirolari bat sailkatuta egon dadin eta puntuazioak kontuan har daitezten.
- Euskal Ligako txapeldun, txapeldunorde eta hirugarren finalista izateko, gutxienez hiru arkulari sailkatu behar dira.
- Ez dira kontuan hartuko Euskaditik kanpo egindako lehiaketetako puntuazioak.



FEDERACIÓN VASCA DE TIRO CON ARCO EUSKADIKO ARKU TIRO FEDERAZIOA

8. **SARIAK**

- Sariak lortzeko gutxieneko puntuazioak ezarriko dira, kirolarien ahalegina eta jarraikitasuna saritzeko.
- Horiek lortzeko beharrezko puntuak dokumentu honetako dagokion eranskinean daude jasota.
- Honako hauek antolatutako lehiaketa ofizialetan lortutako puntuazioei bakarrik emango zaizkie sariak:
 - Arabako, Gipuzkoako edo Bizkaiko Arku Tiro Federazioak
 - Euskadiko Arku Tiro Federazioa
 - Espainiako Arku Tiro Federazioa
 - World Archery
- Aretoko sari bat izateak ez du esan nahi aire librean eskatu ezin denik, eta alderantziz, distantziak eta baldintzak berberak ez direlako.

9. **SARIAK ESKATZEA**

- Lehiaketa amaitu ondoren, kirolariak araudi honetan erantsitako sarien taularekin egiaztatuko du emaitza, eta saria eskatzeko orria behar bezala beteta dagoela, lehiaketako epaileari emango dio sinatzeko, eta behin puntuazioa egiaztatu ondoren, kirolariari sinatuta itzuliko zaio. Kirolariak, azkenik, eskaneatuta bidaliko dio EATF/FVTArri, posta elektronikoz, dagokion ordainagiriarekin batera, eta Federazioa arduratuko da emateaz.

Urtero ezarriko da eman beharreko sari bakoitzeko kirolariak alde aurretik ordaindu beharreko prezioa.

10. **DIZIPLINA ETA GATAZKEN EBAZPENA**

- Eusko Jaurlaritzaren kirol arbitrajearen eta EATF/FVTArren Diziiplina Batzordearen mende egongo da Liga.
- Erregelamendu hau interpretatzean gatazkak sortzen badira, Euskadiko Arku Tiro Federazioaren Zuzendaritza Batzordeak ebaziko ditu.



FEDERACIÓN VASCA DE TIRO CON ARCO EUSKADIKO ARKU TIRO FEDERAZIOA

11. SEGURTASUNA

- EATF/FVTaren ekitaldietako segurtasuna lehentasunezkoa da, eta horietan guztietan agerian geratu beharreko ezaugarria da. Horregatik, lehiaketak egiten diren esparruek segurtasun osoa eskaini beharko diete kirolariei, materialari eta publikoari.
- Segurtasunak Arku Tiroko Instalazioen Gidan jasotako gomendioak bete beharko ditu, eta ekitaldiko Epaileen Batzordeko lehendakariak berrikusi egin beharko du, honako parametro hauekin bat etorritik:
 - a) Parapetoek dentsitate nahikoa izan behar dute geziak gelditu ahal izateko, lumak ukitzera iritsi gabe.
 - b) Tiro guneko eremuak mugatzen dituzten lerro guztiek behar bezala seinaleztatuta eta parte hartzaile guztiek ikusteko moduan egon behar dute.
 - c) Kirolarientzat itxaron lerroaren atzean esleitutako espazioak ondo mugatuta eta ondo ziurtatuta egon behar du, eta ekitaldirako akreditazioa duten pertsonetara mugatu behar da.
 - d) Kirolariak ezin dira ibili beren arku muntatuta dutela sarbide publikoko eremuetan.
- Erabat debekatuta dago ekitaldia egiten den esparru osoan erretzea, Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Euskal Autonomia Erkidegoko Arreta Integralari buruzko apirilaren 7ko 1/2016 Legea betez. Arau hori betetzen ez duen edozein kirolari lehiaketatik botako da berehala.
- Kirol arloan indarkeria, arrazismoa, xenofobia eta intolerantziaren kontrako uztailaren 11ko 19/2007 Legearen 4. artikulua betez, debekatuta dago kirol instalazioetan era guztietako edari alkoholodunak eta droga toxikoak, estupefazianteak edo substantzia psikotropikoak sartzea, saltzea eta kontsumitzea. Arau hori betetzen ez duen edozein kirolari lehiaketatik botako da berehala.



FEDERACIÓN VASCA DE TIRO CON ARCO EUSKADIKO ARKU TIRO FEDERAZIOA

TABLA DE RECOMPENSAS SALA

ARETOA SALA	KONPOSTUA COMPUESTO	BIRIBILDUA RECURVO	BILUZIA DESNUDO	TRADIZIONALA TRADICIONAL	LONG BOW
HORIA AMARILLA	575	560	520	550	540
GORRIA ROJA	570	545	510	540	530
URDINA AZUL	560	525	480	530	520
BELTZA NEGRA	550	500	360	460	420
ZURIA BLANCA	540	450	330	420	380



FEDERACIÓN VASCA DE TIRO CON ARCO EUSKADIKO ARKU TIRO FEDERAZIOA

SOLICITUD DE RECOMPENSA DE LA FEDERACIÓN VASCA DE TIRO CON ARCO
ARKU TIROAREN EUSKAL FEDERAZIOAREN SARI ESKAERA

DEPORTISTA - KIROLARIA

Nº de licencia / Lizentzia-zenbakia	
Nombre y Apellidos / Izena eta Abizenak	
Club / Kluba	

EVENTO / GERTAERA

Fecha / Data	
Nombre / Izena	
Organizador / Antolatzaile	

Solicita Recompensa Ordaina eskatzen du	División Maila	Sala Aretoa	Aire Libre Aire zabalean	Puntos Puntuak
 Amarilla / Horia				
 Roja / Gorria				
 Azul / Urdina				
 Negra / Beltza				
 Blanca / Zuria				

- | | |
|---|--|
| <ul style="list-style-type: none">En el acta que presente el o la Juez de la competición, deberá constar la solicitud de la Recompensa con los datos de la o del deportista, los puntos, tipo de arco y color que solicita. También se enviarán las planillas de resultados. De no ser así esta solicitud no es válidaSe hará entrega de las recompensas (previo pago por todas ellas) en el siguiente Campeonato de Euskadi que se celebreLa o el solicitante deberá enviar este documento completado a la FVTA-EATF, vía e-mail: tiroconarco@euskalkirola.eus antes de las 20:00 h. del martes siguiente a la ... | <ul style="list-style-type: none">Lehiaketako epaileak aurkezten duen aktan, gomendioaren eskaera jaso beharko da, kirolariaren datuekin, puntuekin, arku motarekin eta eskarzen duen kolorearekin. Eraitzen txantiloiak ere bidaliko dira. Horrela ez bada, eskabide hau ez da baliozkoa.Sariak hurrengo Euskadiko Txapelketan emango dira (guztiek ordaindu ondoren).Eskatzaileak agiri hau osorik bidali beharko du EATFra, e-mail bidez: tiroconarco@euskalkirola.eus lehiaketaren hurrengo astearteko 20:00ak |
|---|--|

Firma de la o el deportista
Kirolzalearen Sinadura

Firma del Juez o Jueza
Epailearen Sinadura

En..... a de..... 2025